

# Ingurumen-justizia nazioartean: giza eskubideak benetan bermatzeko bitartekoa

Yary Saidy Belmont Arteaga, Galder Guenaga Garai  
UPV/EHUko irakasleak

Ingurumenaren suntsiketak injustizia larriak eragiten ditu eta, bereziki, planetako biztanle ahulenei erasaten die, neurrigabeko ingurumen-sakrifizioa jasanaraziz. Horregatik, premiazkoa da ingurumen-justiziaren nozioa ulertzea. Eta hori da, hain zuzen ere, artikuluaeren muina, zeinak agerian uzten duen sistema juridikoek duten joera ingurumen-eskubideak ezinbesteko baldintzatatzat aitortzeko giza eskubideak bete daitezen. Aitortza hori hainbat bidetatik egiten da nazioartean, baina nabarmena da jurisprudentziaren bidez egiteko joera. Horregatik, garrantzitsua da ingurumen-justizia ikuspegi askotarikoak dituen genero edo kontzeptu zabal gisa jorratzea, baita haren alderdi jurisdikzionala aztertzea ere, nazioartean ingurumen-justizia nola definitzen eta interpretatzen den azaltzeko.

GAKO-HITZAK: Giza eskubideak · Ingurumen-eskubideak · Ingurumen-justizia · Interpretazio judiziala · Ingurumen-jurisprudentzia.

## Environmental Justice: A tool to effectively guarantee human rights

Environmental destruction causes serious injustices and particularly affects the most vulnerable inhabitants on the planet, who endure a disproportionate environmental sacrifice. It is therefore urgent to understand the notion of environmental justice. And that is precisely the core of the article, which highlights the tendency of legal systems to recognize environmental rights as a prerequisite for the fulfilment of human rights. This recognition is made at the international level by various means, but there is a clear tendency to do so through jurisprudence. It is therefore important to address environmental justice as a broad genre or concept with multiple perspectives, as well as to explore its jurisdictional aspect, in order to explain how environmental justice is defined and interpreted internationally.

KEY WORDS: Human rights · Environmental rights · Environmental justice · Judicial interpretation · Environmental jurisprudence

## 1. Sarrera

Klima-aldaketak eta Covid-19aren pandemiak agerian utzi dituzte —ziur aski beste edozein gertakarik baino nabarmenago— bai gizakiok espezie biologiko bezala dugun patu komuna, bai jendarte batzuek edateko ura, saneamendu- eta elikadura-sistemak eta beste hainbat oinarrizko ondasun eskuratzeko dituzten zailtasun eta are ezintasunak, eta bai indarrean diren produkzio- eta kontsumo-ereduen eta gure planetan beste bizitza mota batzuen garapenaren artean dagoen tentsio handia.

Egoera horren aurrean, premiazkoa da diziplina juridikotik ingurumenaren suntsiketari eta baliabide naturalen gehiegizko ustiapenari aurre egiteko tresnak finkatzea, giza eskubideak benetan eta erabat bermatzeko ezinbesteko bitarteko gisa. Tresna horien artean dago ingurumen-justizia, zeina artikulua honen ardatz nagusia baita. Izan ere, artikulua helburu du ingurumen-justizia kontzeptuaren sorrera eta bilakaera identifikatzea, baita egun esparru akademikoan nagusi diren planteamenduak eta zenbait agintari judizialek hura interpretatzeko duten ikuspuntua azaltzea ere. Horretarako, miaketa bibliografiko zabalaz gain, nazioarteko jurisprudentziaren azterketa sakona ere egin dugu.

Artikuluaren egiturari dagokionez, hasieran aztertuko dugu nola ingurumenaren suntsiketak agerian utzi duen injustizia-polo berri bat, non bai ingurumena bera, eta bai beren egoera sozioekonomikoagatik edo generoagatik baztertutako beste gizatalde batzuk ere, sistemaren biktima baitira; izan ere, sistemak ez ditu eskubidedun subjektutzat hartzen beste kolektibo batzuk bezala, eta, ondorioz, ingurumen-ondasunen eta -kargen banaketa bidegabearen eraginez, ingurumen-injustizia egoera larriak sortzen ditu, eta horrek, era berean, arriskuan jartzen du giza espeziearen biziraupena bera, egungo krisi ekologikoaren testuinguruan.

Ondoren, artikuluan ingurumen-justizia deritzan kontzepturako hurbilketa bat egingo dugu, justizia sozialarekin eta gizarte-mugimenduek haren garapenean duten funtsezko zereginarekin dituen harremanak bistaratuz, kontuan hartuta harreman eta elkarreragin horiek klima-aldaketaren eta krisi ekologikoaren testuinguruan sortzen direla, eta horrek nahitaez eskatzen duela justiziaren alderdi banatzaileari heltzea bai gizakion ikuspegitik begiratuta eta bai ez-gizakien (gizaki ez diren beste izakien) ikuspegitik so eginda ere. Jarraian, ingurumen-justizia kontzeptua bere ikuspegi juridikzionaletik begiratuta aztertuko dugu, non ingurumen-justizia ingurumen-arloko juridikziorako sarbide gisa ulertzen den.

Azkenik, interpretazio judizialeko zenbait kasu aipatuko ditugu, zeinetan ingurumen-justizia funtsezko ardatza izan den gatazkak konpontzeko edo giza eskubideak babesteko, hala nazio-mailan nola nazioartean, gizakion eta ez-gizakien ingurumen-eskubideak babesteko aukera eman duen neurrian, nahiz eta haiek espresuki onartuta eta babestuta ez egon zuzenbide positiboko araudietan.

## 2. Ingurumena: beste biktima bat

Justiziarekiko interesa eta ardura etengabekoak izan dira gizateriaren historian. Eta gaur egun ere, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsialetik zazpi

hamarkada luze igaro diren honetan, justiziaren inguruko kezka txit nabarmena da; izan ere, nahiz eta urte horietan guztietan asko aurreratu den, ezin da ahaztu oraindik bide luzea dagoela egiteko giza eskubideak erabat gauzatu daitezen, eta espero izatekoa eta aintzat hartu beharrekoa da, gainera, egiteke dagoen bide luze hori are gehiago zailduko dutela planetaren muga biofisikoei eta jatorri antropozentrikoa duten ingurumen-degradazioak eragiten dituzten erronka berri eta larriek (Acosta eta Cajas-Guijarro, 2021).

Izan ere, justiziaren auziak ñabardura berriak hartu ditu gaur egun, gizateriaren historiak injustizia-polo berriak ikusarazi dituelako, berez eta beren horretan giza eskubideen aurkako erasotzat har daitezkeenak (Fraser, 2008; Bellver, 2021; Herrero, 2021). Rawls-ek (1971) eta beste hainbat egilek aipatu duten justiziaren paradigma banatzaileari muga eta zailtasun nabariak antzematen zaizkio gizarte askotariko baten berezko konplexutasunak kudeatzeko orduan; izan ere, gizarte askotariko horretan, generoari, etniari eta ezaugarri sozioekonomikoei dagokienez ekitaterik ez egoteak, oso kutsagarria den bizimoldeari eustearekin batera, halabeharrez eskatzen du iraunkortasunaren eta justiziaren ekuazioan aldagai berriak sartzea.

Aldagai horiek, alde batetik, aitortza edo aintzatespenarekin dute zerikusia; izan ere, banaketa-injustizia (Fraser, 2008; Schlosberg, 2007; Borrás, 2021), generoaren araberako ekitaterik eza, ingurumenaren suntsiketa, kutsadura eta arraza-diskriminazioa, besteak beste, instituzionalizatutako menderatze- eta zapalkuntza-eraketan ondorioak dira (Young, 2003), eta horien oinarrian aitortza edo aintzatespenik eza datza; ondorio horiek, gainera, ziztu bizian hedatzen ari dira, eta, ezbaierik gabe, gizateriaren egungo atsekabe eta lazeriaztat (Borrás, 2021) har ditzakegu, garapen iraunkorraren 2030 Agendak adierazten duen bezala.

Eta, beste aldetik, justiziaren ekuazio edo ikuskera berriak parte-hartze sozial eraginkorra ere eskatzen du (Schlosberg, 2007; Bellver, 2021), zeina eztabaida publiko demokratizatu eta feminista baten bidez bideratzen baita, post-hazkundeari lotutako garapenaren kontzepzio berri batean oinarrituta (Martínez *et al.*, 2021; Bellver, 2021; Herrero, 2021); era horretan, klima-aldaketaren, pobrezia-aren, genero-desberdintasunen eta egungo produkzio- eta kontsumo-moldeen ekitaterik ezaren ondorioek giza eskubideak urratzen jarrai ez dezaten (Pogge, 2013; Acosta eta Cajas-Guijarro, 2021). Eta hori guztia Antropozeno<sup>1</sup> izeneko epealdi edo aroa ekarri duen garapen-paradigmaren testuinguruan kokatu beharra dago, non kezka nagusia sistema elikatzea baita, hazten jarrai dezan, nahiz eta horrek gure planetako

---

1. López Bermúdezek (2016) dioenez, *antropozenoa* aro geologiko jakin bat da, grezieraz 'gizakia' esan nahi duen *ánthropos* hitzetik eta 'berria' esan nahi duen *Kainós* hitzetik eratorria, Gizakiaren Aroa bezala itzuli daitekeena. Gizakiak eta bere jarduerak Lur planetako geologiaren eta ekosistemaren zati handi batean eragindako aldaketak biltzen dituen kontzeptua da. Izan ere, izotzik gabeko lurrazalaren hiru laurdenaren berezko itxura aldatu egin da gizakiaren esku-hartzearen ondorioz, eta orain espazio horien lekua paisaia antropizatuek hartzen dute. Aro hau XVIII. mendearen amaieran hasi zen, Industria Iraultzaren fenomenoarekin, eta honako ezaugarri hauek ditu: eragin antropikoa maila globalean, klima-aldaketa, materia- eta energia-fluxuen alterazioa, airearen eta uraren osaera kimikoen aldaketa, ozeanoen azidotzea eta itsas ekosistemen degradazioa, nekazaritza-iraultzak eragindako karbono-zikloaren alterazioa, eta ongari kimikoen eta petroliotik eratorritako produktuen erabilera, besteak beste. Aro honetan, gizakiak ekosistema osoak baino materia solido gehiago mugitzen du, hala nola arrokak, lurra eta sedimentuak; horregatik esaten da aro honetan gizakia dela eragile geologiko nagusia.

ekosistemaren osasuna kaltetu eta tokian-tokian zein maila globalean baztertutako jendartearen giza eskubideak urratu (Vicente eta Berzosa, 2016; Vicente, 2020; Bellver, 2021).

Gaur egungo injustizien konplexutasunak gizarteko eragile guztien konpromisoa eskatzen du. Gobernuak, legegileak eta epaileak estatuko legeen eta izenpetzen dituzten nazioarteko legeen arabera jokatu behar dute, eta haien jarraibide nagusiak giza eskubideak errespetatzea eta bermatzea izan behar du beti. Izan ere, azken urteotan aurrerapen handia egin bada ere ez-gizakien eskubideen aitortzan (Berros eta Carman, 2022), kontua da gaur-gaurkoz aitortza hori ez dagoela erabat finkatuta; hots, egindako aurrerapena oraindik ez da nahikoa giza eskubideak modu eraginkorrean eta benetan betetzen direla bermatzeko eta, hartara, Lur planetan giza espeziearen iraunkortasuna ziurtatzeko. Hortaz, ezinbestekoa eta premiatsua da aldaketa berriak egiteko konpromisoa hartzea (Martínez *et al.*, 2021).

Konpromiso hori orokortzeko premia gorria dagoen arren, egungo agertoki globalak gordin eta nabarmen bistaratzen du giza eskubideak betetzea zaila dela oso, arrazoi sozioekonomikoei, etnikoei eta generokoei dagokienez ez dagoelako banaketa-ekitaterik; baina, horrez gain, azken urteotan agerikoa da injustizia-polo berri bat dagoela, eta horrek giza eskubideetan eragin negatibo duela, bi norabidetan (Bellver, 2021). Hala, i) bai ingurumena suntsitzen duen kutsadura eta ii) bai giza bizitzarako beharrezkoak diren ondasun naturalen degradazioa eta eskasia ere injustizia-iturri berri bat dira, fenomeno horien inpaktu okerrenek hein handiagoan eragiten baitiete diskriminatutako jendarteei, *neurrigabeko* (gehiegizko) ingurumen-sakrifizioak jasaten baitituzte, beren osasuna eta duintasunez bizitzeko aukerak arriskuan jarriz (Borrás, 2021). Gainera, inpaktu horiek nolabait *metatu* egiten dira, eta haien ondorioak eta kalteak klima-aldaketaren berezko fenomenoetan, besteak beste, islatzen dira (Hallegate *et al.*, 2017; Miqueleiz *et al.*, 2019; RTVE, 2021); izan ere, ondorio eta kalte horiek larritasun handiagoz erasaten diete jendarte jakin batzuei: hondamendi naturalen, lehorreen, biodibertsitatearen galeraren<sup>2</sup>, elikagai eta edateko ur faltaren eta gisako mehatxuen aurrean baliabide eta estrategia gutxiago dituzten gizatalde baztertuei, alegia (Bellver, 2021; Martínez *et al.*, 2021).

Baztertutako jendarte batzuek neurrigabeki pairatzen dituzten ingurumen-sakrifizio horiek banaketan dagoen ekitaterik ezarekin dute zerikusia (Arriaga eta Pardo, 2011; Bellver, 2021); izan ere, jakina denez, ez dira ekitatez banatzen ez ingurumen-kargak (adibidez, kutsaduraren edo klima-aldaketaren ondorio negatiboak), ez giza bizitzarako beharrezkoak diren ingurumen-ondasunak (adibidez, giza erabilerarako eta kontsumorako gokiak diren airea eta ura).

Ingurumen-sakrifizio horiek, beraz, agerian utzi dituzte gizakien arteko desberdintasunak; eta sakrifiziook neurrigabeak izatera iristen dira, haien erruz oinarritzko giza eskubideak urratzen badira; baina, era berean, agerian utzi dute desoreka dagoela Mendebaldeko gizarte kapitalisten metabolismo sozialean<sup>3</sup>,

2. Attenborough-en arabera (2021), gure garaiko benetako tragedia biodibertsitatearen galera da, planeta ezin delako funtzionala izan biodibertsitate gabe.

3. Metabolismo soziala gizartearen materia- eta energia-fluxuak eta horiek parametro ekonomikoekin duten harremana kuantifikatzeko erabiltzen den kontzeptua da, eta sarrera- edo jabetze-kalkuluak eta irteera- edo iraitz-kalkuluak egiten ditu (Toledo, 2013).

non beste injustizia-polo larri bat dagoen: gizakiok mutur batean gaude, subjektu menderatzaile gisa, eta natura, berriz, beste muturrean, menderatutako objektu gisa (Bellver, 2021). Horrek gizarteak kontsumitzen duen materia- eta energia-kantitatearen eta benetan erabilgarri dagoenaren arteko desoreka eragiten du, sistema natural biofisiko mugatu baten baitan gaudenez gero (Martínez Alier, 2011).

Aipatzekoa da, gainera, neurrigabeko ingurumen-sakrifizio horiek emakumeen eta gizonen artean, pobreen eta aberatsen artean, beltzen eta zurien artean dauden ohiko injustizia-polei gehitzen zaizkiela, eta haiek larriagotzen dituztela (Fraser, 2008), harremanaren mutur diskriminatuan daudenei kalte egiten dietelako (Bellver, 2021; Herrero, 2021). Horrez gain, gizakien eta naturaren arteko distantzia ere areagotzen dute, eta hori da, funtsean, ingurumenaren suntsiketaren eta kutsaduraren kausa eta erroa, natura jabetzapeko eta mendeko objektutzat hartzen delako eta ez zaiolako inolako aitortza edo begirunerik zor (Mesa, 2007; Borrás, 2021). Hori erabakigarria da garai honetan, baliabide naturalak gehiegi ustiatzearen eta natura arpilatzearen euskarri (izan) baita; eta hori mugarik gabeko hazkunde ekonomikoa bultzatzeko egin da, eta horren gainean oinarritu da, hain zuzen ere, munduan barrena zenbait jendarteren giza garapena eta garapen teknologikoa (Vicente eta Berzosa, 2016); jendarte horiek planetaren hondamendiaren ertzean bizi diren herritarrak dira, ordea; bizimodu erosuari eusteko hartzen dituzten erabakietan baitatza, hain justu, planetaren beraren hondamendia (Attenborough, 2021:12).

Adibidez, Amazoniaren suntsiketak mundu osoko gizaki guztiei eragiten badie ere<sup>4</sup>, epe labur eta ertainean eragin handiagoa du tokiko eskalan, bertan bizi diren indigenei eta nekazariei zuzenean egiten dietelako kalte, haiek baitira Amazoniako ekosistema desagertzearen ondorio biofisikoak nozitzen dituzten lehenak. Ondorio horiek osasun-arazoak eta heriotzak eragiten dituzte herritarren artean; eta herri indigenen kasuan, kultura-sarraskia ere eragiten du (Moreno, 2019), beren ingurune naturala gurtzearekin lotutako antzinako tradizioak eta ohiturak gauzatzeko ezintasun materiala dutelako; horrek, era berean, belaunaldiz belaunaldiko kultura-transmisioa eragozten du. Hori gutxi ez eta ondorio sozial eta ekonomiko horiek eragina dute garapenean ere, pobrezia eta diskriminazioa baitakarkiete herri horiei, giza eskubideak larriki urratuz (Beristain *et al.*, 2009).

Injustiziazko agertoki global berri honetan, ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-arloek aldi berean eragiten dute, eta egungo belaunaldian giza eskubideak urratzeaz gain, etorkizuneko belaunaldien bizitza bermatzeko beharrezkoak diren ingurumen-ondasunei ere kalte egiten diete (Bellver, 2021); ondorioz, koloka larrian jartzen dute giza espeziearen iraunkortasuna bera. Horregatik, estrategia bat aurkitu beharra dago gure habitatean, Lur planetan, bizitzeko era berri baterantz —bestelako bizimodu baterantz— igarotzeko.

Hori dela eta, bizitzeko era berri hori xede, munduko estatu askok gobernu-mailako eraldaketak egiteko asmoa agertu dute, eredu iraunkor bat ezarri nahian (Martínez *et al.*, 2021: 139). Eredu horretan, garapenaren kontzeptu tradizionala erlatibizatu egiten da, eta bide ematen zaio eztabaida publikoa sustatzeko

4. Amazonia «planeta osorako zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituen eta klima kontrolatzen duen bioma ekoizlea» delako (Cepal, 2013).

prozesu integratzaile bati. Eztabaida publiko hori, etorkizuneko benetako aukerak kontuan izanik, gizatasunaren eta justiziaren ideiei buruzko hausnarketa sakon bati lotuta dago. Eta ideia horiek ez dute zerikusirik zertan izan garapenaren ideia tradizionalarekin (Martínez et al., 2021: 142).

### 3. Ingurumen-justizia kontzeptuaren irismena

Kritikak kritika, giza eskubideak argia eta gida izan dira gizadiarentzat 74 urtez «bakea» egon dadin; «bake» hori erlatibotzat har badaiteke ere, giza eskubideek hirugarren mundu-gerra bat izatea eragotzi dute behintzat. Nolanahi ere, planetaren egungo ingurumen-baldintzek, Antropozenotik eratorritakoek (Vicente eta Berzosa, 2016), giza eskubideen magalean ingurumen-dimentsioa ere aintzat hartzea eskatzen dute, giza eskubideak ezin baitira benetan gauzatu horretarako ingurumen-baldintzarik ez badago (Attenborough, 2021: 12; Acosta eta Cajas-Guijarro, 2021).

#### 3.1. Ingurumen-injustiziaren aurkako estrategia multidimentsional bat

Gaur egun, ukaezina da Lur planeta klima-aldaketaren prozesu batean murgilduta dagoela (Useros Fernández, 2013); eta ukaezina da, halaber, prozesu horren ondorioek ohiko desberdintasunak areagotzen dituztela eta egunero askoz pertsona gehiagoren giza eskubideak arriskuan jartzen dituztela (Acosta eta Cajas-Guijarro, 2021). Gainera, egungo injustiziak gero eta konplexuagoak dira, dimentsio anitzekoak direlako (Pleyers, 2019); izan ere, dimentsio politiko, sozial, ekonomiko eta biofisikoek batera eragiten diete injustizia horiei, eta, era eta aldi berean, ingurumenaren gorabeherak biziki baldintzatzen dituzte dimentsio horiek guztiak.

Ondorioz, injustiziari eman beharreko erantzunak justizia sozialaren eremu tradizionala gainditzen du, ekosistemak eta izaki bizidunak ere defendatu behar baititu, giza eskubideen errespetuarekin bat etorritik. Ingurumen-eskubideen defentsa ezinbesteko baldintza da giza justizia osoa maila globalean eratzeko eta errotzeko (Bellmont, 2011, 2013).

Ildo horretan, borroka ekologistak ezin dira giza eskubideen aldeko borroketatik bereizi, eta justizia sozialaren aldeko aldarrikapenek kontuan izan behar dute ingurumena babestea funtsezkoa dela gizakiok bizitzarako beharrezkoak ditugun ingurumen-ondasunak eskuratzea bermatzeko; izan ere, ingurumen-ondasun horiek ezinbestekoak dira finkatutako eskubideez gozatzeko (Sachs, 1996; Bellver, 2021).

Ingurumenari eta klimari lotutako kalteen eraginez gertatzen diren giza eskubideen urraketek (Borrás, 2021) nahiz ingurumen-onuren edota -kalteen banaketan ekitaterik ez izateak *bestelako* erantzun batzuk eskatzen dituzte, orain artekoak ez bezalakoak; eta erantzun horiek giza eskubideen sistemetan daude, ikuspegi multidimentsionaletik aztertuta (Kothari et al., 2019). Eta ikuspegi multidimentsional hori zuzenean lotuta dago ingurumen-justiziaren muinarekin; izan ere, ingurumen-justizia kontzeptu zabal bat da, zeinak ez dituen soilik kontuan hartzen gizarte-mugimenduen borrokak edo naturarekiko banaketa-ekitateak; horiez gain, planetan giza bizitza duina bermatzeko beharrezkoak diren gainerako alderdiak ere biltzen

ditu. Beraz, kontzeptu zabal horren baitan sartzen dira justizia ekologikoa, klima-justizia eta justizia soziala (azken horretatik beste «azpiespezie» batzuk ere «zintzilikatzen» dira, hala nola justizia energetikoa, justizia geografikoa eta lurralde-justizia, besteak beste).

Horrela, ingurumen-justiziak hiru dimentsio nagusi ditu: 1) Lehenik eta behin, *justizia soziala*, iraunkortasunaren testuinguruan gauzatu behar dena eta gizarte-mugimenduen aldarrikapenei esker aurrera egin duena (Bellver, 2021). 2) Bigarren, *justizia ekologikoa* (Gudynas, 2010), zeinaren arabera gizakiek ez duten natura mendeko objektu hustzat hartzen; aitzitik, gizakiek onartzen dute beharrezkoa dela natura eskubidedun subjektutzat hartzea (Vicente, 2020) edo, gutxienez, babestu beharreko subjektutzat hartzea, eta subjektu hori ez dela suntsitu behar ezein arrazoirengatik, ezta etekin ekonomikoa lortzeagatik ere. 3) Hirugarren, justizia-administrazioaren sistemak *dagokion jurisdikzioa egikaritu* behar du, gizakion eta ez-gizakien ingurumen-eskubideak gauzatzeko bitarteko gisa jardunez, eta, horren bidez, finkatutako giza eskubideak (esaterako, bizitza duinerako eskubidea edo osasunerako eskubidea) benetan eta erabat egikaritzen direla bermatuz (Salazar, 2019). Azter ditzagun hiru dimentsioak bana-banan.

### *3.1.1. Ingurumen-justiziaren lehenengo dimentsioa: gizarte-mugimenduen aurrerapena*

Ingurumen-justiziaren lehenengo dimentsioa justizia sozialari dagokio, eta munduan barrena gizarte-mugimenduek egindako lanari esker garatu da (Svampa, 2020; Bellver, 2021). Izan ere, ingurumen-justiziaz hitz egin zen lehen aldia 1980ko hamarkadan izan zen, Ameriketako Estatu Batuetako ingurumen-arrazakeriaren aurkako gizarte-mugimenduaren barruan (Di Chiro, 1997), eta, geroztik, kontzeptu hori indarra hartuz joan da tradizionalki aldentuta egon izan diren bi borroka elkartzen dituen tresna bezala: batetik, justizia sozialaren aldeko borroka, eta, bestetik, ingurumen-babesaren aldeko borroka (Arriaga eta Pardo, 2011).

Ingurumen-justiziaren alderdi horren garapenak agerian utzi zuen —eta gaur egun inoiz baino nabariagoa da— eskubide zibilen aldarrikapena ezin dela ingurumen-eskubideen aldarrikapenetik isolatuta egon, guztiak baitira bermatuta egon behar duten giza eskubideak, bai belaunaldi honetan eta bai etorkizuneko belaunaldietan ere Lur planetan bizi(ko) diren gizakien bizitza duina ziurtatzeko.

Aurrez adierazi dugunez, gizarte-mugimenduek aldaketarekin zuten konpromisoa hasieran arrazismoaren aurkako borroka latzean islatu zen, batez ere ingurumen-arrazakeriaren aurkako borrokan (Hervé, 2010; Gudynas, 2015; Moreno, 2019). Ingurumen-arrazakeria, azken batean, arraza-diskriminazioaren emaitza da, eta gordin bistaritzen du gutxiengo etniko bateko pertsonak ezin dituztela beren eskubide zibilak baldintza berdinetan baliatu, «ingurumen-sakrifizio» neurrigabeak ezartzen zaizkielako (Rodríguez Mir, 2012).

Esandakoaren harira, eta adibide gisa, giza komunitate gutxituak bizi diren lurraldeak ingurumen-ondorio desegoki eta kaltegarriak (zaborrak, kutsadura...) deskargatzeko lekutzat erabiltzeko nahita hartutako erabakiek dakarte ekitatetik

eza (hots, arraza-diskriminazioa) hainbat kasutan. Kalte horiek lurralde horretako biztanleei eragiten diete nagusiki (Bellver, 2021); eta erabaki horiek, maiz, tokiko biztanleak beldurtzeko eta beren lurraldeaz legez kanpo desjabetzeko estrategia gisa hartzen dira, eta ezabatze etnikoa ere eragin lezakete (Moreno, 2019). Praktika horiek indarrean dira, tokiko biztanleei ez zaizkielako aitortzen dagozkien eskubideak, eta agintariek nahiz partikularrek ez dituztelako betetzen ingurumena babesteko berdintasuna bermatzen duten legeak.

Fenomeno horren jatorria arrazakeria biologikoan —hau da, pertsonen larruzalaren kolorearen arabeko diskriminazioan edo tratu bereizgarrian— datza, zeina afrikar ondorengoan eta indigenen eskubideak ukatzeko estrategia kolonial gisa garatu zen, garai hartako botere-interesak eta aberastasun-metaketa bultzatzeko xedearekin (Rodríguez Mir, 2012). Baina arazorik larriena da, desagertu ordez, arrazakeria biologikoa oraindik presente dagoela nonahiko gizarteetan, eta globalizazioak bultzatu egin duela haren hedapena; horregatik, orain arrazakeria biologiko gisa agertzeaz gain, arrazakeria estruktural gisa ere agertzen da, xenofobiaren bidez adierazia; arrazismo kultural gisa ere ageri da, aurreiritzi klasistetan islatua (Arriaga eta Pardo, 2011); edo ingurumen-arrazakeria eta ekokolonialismo gisa ere bistaratzen da (Fernández Buey, 2012), zeinak hainbat praktika edo aurpegi dituen: estraktibismoa (Gudynas, 2013), elkartruke ekologiko desorekatua, inperialismo toxikoa (Martínez Alier, 2008), edo biopirateria (Ribeiro, 2015), beste ingurumen-injustizia batzuekin batera.

Gizarte-mugimenduen borrokek, ordea, fruituak eman dituzte. Izan ere, hasiera-hasieratik, Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumen Justiziaren Mugimenduak lortu egin zuen AEBko estatu-agintariek beren aldarrikapenak juridikoki aintzat har zitzaten, Bill Clintonek 1994an sinatutako agindu betearazle baten bidez (Bellver, 1996); agindu hark bermatu egiten zuen ingurumen-babesean berdintasuna izatea, eta saihestu egiten zuen ingurumen-kargen banaketan, arraza-diskriminazioan oinarrituta, ekitaterik ez izatea.

Lorpen hark garrantzi berezia izan zuen, bai ingurumen-arrazakeriak eta ingurumen-injustiziak kalteturiko herritarrentzat berehalako ondorioak izan zituelako (Gudynas, 2015), eta bai Ingurumen Zuzenbidearentzat ere aurrerapen garrantzitsua ekarri zuelako. Izan ere, gizartearen parte-hartzearen garrantzia nabarmendu zuen. Baiki, agerian utzi zuen lehen batean inolako interes ekologistarik (ez, behintzat, garaiko mugimendu ekologistek zeuzkatenak bezalakorik) ez zuen talde bat, bere eskubide zibilak defendatu besterik nahi ez zuena, iraunkortasunerantz urrats handi bat egiteko gai izan zela, eta izaera globaleko pentsamendu-korronte baten oinarria izango zela. Harrezkero, korronte horrek sendotu egin du justizia sozialaren aldeko borroka eta ingurumena babestearen aldeko borroka uztartzeko ideia, betiere parte-hartze sozialaren esparruan, eta ingurumenaren aldeko ikuspegi global berri baten oinarriak ezarri ditu, «herri-ekologismo» edo «pobreen ekologismo» izenez ere ezaguna dena (Martínez Alier, 2009).

Geroago, Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumen Justiziako Mugimenduaren, herri-ekologiaren aldeko gizarte- eta ingurumen-mugimenduen eta globalizazioaren aurkako mugimenduen ondorengo gisa, klima-justiziaren aldeko mugimenduak



sortu eta nabarmendu dira<sup>5</sup>. Horiek, ekitate-politika ez ezik, sektore kaltetueneren aintzatespena eta parte-hartze politikoa ere eskatzen dituzte (Svampa, 2020: 110-111).

Era berean, gaur egun, klima-justiziaren alde borrokatzen duten gazte-taldeek eta -erakundeek agerian utzi dute belaunaldien arteko elkarriketaren beharra, baita lurralde-, toki- eta mundu-mailako ekintzak eta adierazpenak artikulatu beharra ere, gizakion ingurumen-eskubideak bermatzeko mekanismo gisa, jakitun izanik borrokak menderatze kapitalista neokolonial, arrazista eta patriarkalak eragindako era guztietako desberdintasun eta diskriminazioen aurkakoa izan behar duela (Svampa, 2020: 120; Herrero, 2021; Bellver, 2021).

Bestalde, giza eskubideak eta ingurumen-justizia aldarrikatzeko gizarte-mugimenduek egindako ahaleginak oihartzuna izan du sektore akademikoetan ere, eta bertatik ekarpen garrantzitsuak egin zaizkio paradigma banatzailean oinarritutako justiziaren teoria tradizionalari (Schlosberg, 2007; Gudynas, 2015). Ekarpen eta aurrerapen horiei esker, ingurumen-justizia paradigma berri gisa ulertu ahal izan da, gizateriak ingurune naturalarekin eta bere kideekin harremanak izateko modu iraunkor berrietara igarotzeko baliagarria.

Paradigma berri hori eraikitzeko, ordea, giza eskubideen inguruko interpretazio edo irakurketa berriak egin behar dira; interpretazio horiek ikuspegi ekobiozentrikorantz jo behar dute, eta haien edukia irakurri eta ulertzeko, beste giza eskubideekiko interdependentzia ez ezik, naturarekiko erlazioa ere aintzat hartu behar da ezinbestez (Santamaría, 2020: 121), jarraian ikusiko dugun legez.

### 3.1.2. *Ingurumen-justiziaren bigarren dimentsioa: justizia ekologikoa*

Dimentsio honek naturaren beraren eskubideak aitortzeko beharra planteatzen du, Andeetako neokonstituzionalismoan egiten den bezala (Santamaría, 2020:121)<sup>6</sup>. Naturaren eskubide horiek ulertzeko —eta horretarako Mendebaldeko teoria juridikoa nahikoa ez dela kontuan hartuta—, oinarritzko hiru printzipio dira aipagarri: i) *Desberdintze-printzipioa*, zeinaren arabera izaki bakoitzak bere nortasuna, eboluzioa eta lekua baititu planetan eta, beraz, ez baita uniformetasuna inposatu behar; ii) *Autopoiesi-printzipioa*, zeinak izaki bakoitzari bere burua birsortzeko gaitasuna garatzea bermatu behar dion; eta iii) *Batasun-printzipioa*, zeinaren bidez onartzen baita natura osoa (tartean bai gizakiak, bai ez-gizakiak ere) lankidetzeta elkartasun-prozesuen bidez garatu dela (Santamaría, 2020: 121). Printzipio horietatik abiatuta, ingurumen-justiziaren dimentsio berri bat kontuan hartzeko beharra sortzen da, gizakien eta naturaren arteko harreman zuzenaren esparruan kokatzen dena, eta *justizia ekologikoa* deitu izan dena (Schlosberg, 2007).

5. Svampa-ren esanetan (2020: 110-111), *klima-justizia* kontzeptua «1999an sortu zuen Corporate Watch taldeak (ingurumen-justiziako mugimenduko kide aktibo zenak), San Frantziskon, eta proposatzen zuen berotze globalaren arrazoiei heltzea, isurketen ardura duten korporazioei (petrolio-enpresei) kontuak eskatzea eta trantsizio energetikoaren beharra planteatzea».

6. *Andeetako neokonstituzionalismo* delakoa «Konstituzio-eremuan, idatzizko zuzenbidean, herri indigenen eta gizarte-mugimenduen praktika juridikoak sartzea da, krisi ekologikoari aurre egiteko gure gizarteak eraldatzea helburu dutenak» (Santamaría, 2020: 106). Konstituzionalismo mota horren adibide da 2008ko Ekuadorko Konstituzioa, bereziki 71. artikulua.

Ingurumen-justiziaren bigarren dimentsioa, hortaz, justizia ekologikotik abiatuta eratzen da (Schlosberg, 2007). Justizia ekologiko horrek gizakiek naturarekin dituzten interakzio-moduak aldatzen ditu (Gudynas, 2015), giza komunitate moralaren barruan natura bera eskubidedun subjektu berri gisa txertatzeko (Mesa, 2007; Vicente, 2020). Horren helburua da mendebaldar kutsuko produkzio- eta kontsumo-jardueren egunerokotasuna aldatzea, jarduerok hazkunde ekonomiko mugagabea baitute helburu, eta hori ez delako bateragarria ekosistemaren baliabide biofisiko mugatuekin (Martínez Alier, 2008).

Ingurumenaren suntsiketa giza espeziearen autosuntsiketa da (Bermejo *et al.*, 2016), aurrerapen teknologiko sofistikatuenean ere ez baitute lortu gizakiaren naturarekiko mendekotasuna ezabatzea (Vicente eta Berzosa, 2016). Beraz, beharrezkoa da ingurugiro naturala arpilatu eta hondatzen duten produkzio- eta kontsumo-jardueren oinarri diren giza pentsamoldeak aldatzea (Ángel, 1998; Attenborough, 2021).

Horretarako, ezinbestekoa da gizarteko eremu guztietan gure planetako bizitza beste era batera ulertzeko ekintzak planteatzea eta gauzatzea, ongizate eta garapenaren ideiak, batetik, eta hazkunde ekonomiko mugagabea baino bilatzen ez duten jarduerak, bestetik, bereiziko dituztenak, gure garaiko injustizia larriei aurre egiteko aukera bakar gisa, horietako gehienak ingurumenarekin loturiko arazoek baldintzatu edo eragindakoak baitira neurri handi batean (Rees, 2009). Izan ere, behartutako migrazioak, heriotzak eta giza osasunaren gaineko kalteak, diskriminazioa edo jabetzaren aurkako erasoak ez dira soilik gerren edo beste gatazka beliko batzuen ondorio; ingurumen-indarkeria multidimentsionalaren ondorio ere badira (Kothari *et al.*, 2019).

Esandakoaren argigarri, ibaiak eta ozeanoak kutsatzen direnean, ibaiak edo itsasoek sortzen dutenetik bizi direnak elikadura- eta lan-iturririk gabe utziz, ingurumen-indarkeria erabiltzen da. Berotegi-efektuko gasak areagotzen dituzten jarduerak egiten direnean, klima-aldaketa larriagotuz, indarkeria erabiltzen da mundu osoan fenomeno horren eraginpean dauden milioika lagunen aurka, eta indarkeria horrek kalteak eragiten ditu (Borrás, 2021), eta arriskuan jartzen du gizateriaren bizikidetzak baketsua, eta, jakina, baita duintasunez giza eskubideak bermatzea ere (De Sousa Santos eta Sena Martins, 2019).

Era berean, airea, lurzorua eta ura kutsatzen direnean, ekoizpen industrialaren, nekazaritza-ekoizpenen, megaproiektu energetikoen edo industria militarren ondorioz (Higgins, 2010a, 2010b, 2012), giza eskubideak kaltetzen dira, bizitzarako funtsezkoak diren ingurumen-elementuak erasotzen direlako. Ez zaio, baina, giza bizitzari soilik eraso egiten, Lurreko bizitza osoari baizik, sistema planetario osoan bereizgarri den horri, materialen eta energiaren arteko oreka justua izatea ahalbidetzen duen horri, zeina giltzarri baita giza bizitzak aurrera egin dezan (Gudynas, 2015).

Beraz, justizia soziala eta ingurumenaren suntsiketa lotzen dituzten arazo guztiak ingurumen-injustiziak dira, eta kudeatu egin behar dira ezabatu ahal izateko, biktimen giza eskubideak urratzen dituztelako. Ildo horretan, iraunkortasunerantz

aurrera egiteko aldaketarako konpromisoak gizaki guztiona izan behar du, esparru guztietan eta ezagutzaren diziplina guztietan (Westra, 2016; Martínez *et al.*, 2021).

Alderdi juridikotik begiratuta, ingurumen-justiziaren nozioak, justizia ekologikoaren bigarren dimentsio honetan, agerian utzi du beharrezkoa dela, ingurumenaren babesari dagokionez, ikuspuntu antropozentriko batetik ikuspuntu ekozentriko batera igarotzea. Izan ere, ikuspuntu antropozentrikoaren arabera, ingurumena ondasun juridiko gisa babesten da, giza beharrianak asetzeko baliagarria den aldetik, hots, balio instrumentalagatik. Ikuspegi ekozentrikoaren arabera, aldiz, ingurumena eskubidedun subjektutzat jotzen da, bere berezko balioagatik hartzen da kontuan, eta, ondorioz, babesaren xedea ingurumena bera da, berez, halakoa den aldetik (Arlettaz, 2022); horrela, naturaren defentsa eraginkorragoa egiten da, eta, hedaduraz, planetan pertsona gehiagok aukera hobea eta errealagoa dute bitzta duinerako giza eskubidea benetan gauzatzeko.

Ildo horretan, premiazkoa da onartzea naturak bere interesak dituela<sup>7</sup> eta sistema juridikoek naturaren interes horiek babestu behar dituztela, Zuzenbideak lortu nahi dituen justizia eta ondasun publikoko helburuak betetzen laguntzen baitute (Stutzin, 1984: 104). Azter dezagun xeheago segidan.

### 3.1.3. *Ingurumen-justiziaren hirugarren dimentsioa: ikuspegi jurisdikzionala*

Ingurumen-justiziaren hirugarren dimentsioak alor jurisdikzionala du arretagune. Izan ere, esandakoak esanda, argi dago iraunkortasunerako bideak tresna lotesleak behar dituela, bai ingurumen-ondasunak<sup>8</sup> ondasun komun gisa kudeatzeko (Pardo eta Ortega, 2018), baita juridikotasunaren nozio zabala berreskuratzeko ere, zuzenbidearen, moralaren eta justiziaren artean dagoen lotura erabat aitortuz (Del Vecchio, 1968)<sup>9</sup>. Horretarako, Zuzenbidearen eginkizun orientatzaile eta pedagogikoak berebiziko garrantzia du; izan ere, giza bizitzaren eta estatuaren<sup>10</sup> bizitzaren une guztietan dagoenez, Zuzenbidea tresnarik egokiena da gizartearen baitako gertaerak, arauak eta balioak uztartu eta adiskidetzeko (Goldschmidt, 1973).

Zuzenbideak gizartean eta estatuan dituen une guztiak erabakigarriak dira helburua betetzeko. Dena dela, ingurumen-gatazkak daudenean, puntu kritikoenetako bat justizia-administrazioaren sistemara jotzen dutenei ematen zaien arreta juridikoa da, ingurumen-arloan justizia lortuko bada (Salazar, 2019).

---

7. Stutzin-ek planteatutakoaren arabera (1984: 103), naturaren interesa da bere ahalmen sortzailea modu aske eta osoan garatzea, hau da, hura arautzen duten funtsezko printzipioen arabera: aniztasuna eta oreka.

8. «Ingurumen-ondasun» terminoa erabiltzen da, gaur egun Mendebaldeko arau-sistema gehienetan naturari esleitzen zaion kategoria juridikoarekin bat datorrelako. Hala ere, ezinbestekoa da naturari aitortza egitea babes juridikoaren hartzaileen parte gisa, eta ez soilik giza onurarako aprobetxatzen den objektu gisa.

9. Horren harira, kontuan hartu behar da, Del Vecchiok (1968) adierazi bezala, eskubide positiboaren corpusa osatzen duen guztiak, hura osatzera iritsi aurretik, prozesu sozial bat sortu behar izan duela, non justiziaren idealak Zuzenbidearen bidez legeztatzea lortzen duen aldarri bihurtzen diren; horregatik, ez dago arrazoirik justizia materialaren ideia eta Zuzenbidearen helburu transzendentelak bereizteko.

10. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaz ari gara.

Horregatik, ingurumen-justizia terminoak lotura sendoa du ingurumen-jurisdikzio terminoarekin, Zuzenbidearen une judiziala aukera paregabea baita ingurumen-justizia gauzatzeko. Justizia hori osatzen dute ingurumen-justiziaren aldeko gizarte-mugimenduen aldarrikapenetan eta akademiak egindako ekarpenetan oinarritutako eraikuntza guztiek (Schlosberg, 2007).

Kontua da elementu horiek guztiak legeetan jasota egon behar dutela aplikatu ahal izateko<sup>11</sup>, baina, halakorik ez dagoenean ere, aukera juridikoak egon behar dira epaileek justizia gauzatu ahal izan dezaten (Prieto Sanchís, 1997); kasu honetan, ingurumen-justizia gauzatu ahal izan dezaten *jurisdikzio-ariketa* baten bidez (Salazar, 2016), justizia-administrazioa eta epailearen funtzioa arautzen dituzten printzipioen esparruan: hala nola legezkotasun-printzipioa, independentzia-printzipioa eta inpartzialtasun-printzipioa (Willemann, 2011).

Ingurumen-injustizien biktimek ez lukete itxaron behar legegileak lege zehatzak egin arte lehendik dauden lege orokorretan ageri diren alderdi konkretuei buruz; aitzitik, gai finkatuei buruz (hala nola giza eskubideei eta oinarritzko eskubideei buruz) ordenamenduan dauden lege horietatik abiatuta, ingurumen-justizia bide judizialek gauzatu beharko litzateke. Horregatik, ordenamendu juridiko batean epaileek giza eskubideak eta ingurumen-legeak interpretatzeko duten modua zeharo garrantzitsua da, ingurumen-justizia gauzatzeko bide bakarra delako, giza eskubideei dagokienez, eta are gizakion eta ez-gizakien ingurumen-eskubideak erabat eta zehatz-mehatz aitortzen dituen legerik ez dagoenean ere.

### 3.2. Ingurumen-justizia interpretatzeko ikuspegia

Ildo horretan, hainbat alderdi aztertu behar dira, hala nola giza eskubideak ekologizatzeko aukera, giza eskubideak ingurumen-printzipioen ekointegrazioan<sup>12</sup> oinarrituta interpretatuz, edo ingurumen-justiziaren aldeko aukera, pertsonen aldeko (*pro homine*)<sup>13</sup> interpretazio hermeneutikoaren ikuspegi gisa, giza eskubideak benetan betetzea bermatuko duena.

Ingurumen-justizia interpretatzeko ikuspegiak bi eskala izan beharko lituzke: lehen eskala bat, ingurumen-jurisdikziorako sarbideari dagokiona, zeina (a)

---

11. Zuzenbideko estatuetan funtzio judiziala arautzen duen legezkotasunaren eta legearen agintearen printzipioaren arabera (Redondo *et al.*, 2009).

12. Zuzenbidea ekologizatzeko programa bat da, eta sistema juridikoaren eragiketa-egitura tradizionalak iragazi nahi ditu, espezie bezala gizakiaren iraunkortasunaren alde. Horretarako, paradigma ekologikoaren itzulpen juridikoa egiten du, «sistema juridikoaren nozioa eta funtzionamendu-proposamenak organismoen, hau da, ekosistemen funtzionamendua deskribatzeko erabiltzen den sistema motara egokitzeko. Egokitzapenak ez du esan nahi kontzeptu juridikoak biologiko edo natural bihurtu behar direnik [...]. Egokitzapenak esan nahi du sistema juridikoak berak mekanismoak ezartzea ingurumen-arazo bakoitza sistema juridikora kontzeptualki eraldatzeko» (Serrano, 1992).

13. Printzipio hori «giza eskubideen izaerak berak ezarritako funtsezko irizpidea da, eta eskubide horiek ematen edo zabaltzen dituzten arauak modu hedatzailean interpretatzera behartzen du, bai eta eskubide horiek mugatzen edo baldintzatzen dituzten arauak modu murriztailean interpretatzera ere. Beraz, giza eskubideak berehala eta baldintzarik gabe betetzea da araua, eta haiek baldintzatzea edo mugatzea, aldiz, salbuespena». Printzipio hori aplikatzeak eskubide substantibo eta prozesal berriak eraikitzea ahalbidetu du, helburu baitu erabaki guztietan gizakia hobekien babesten duen emaitza lortzea (Drnas De Clement, 2015).

ingurumen-informaziorako eskubidean, (b) ingurumen-erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko eskubidean eta (c) kalteak konpontzeko jurisdikziora sarbidea izateko eskubidean funtsatzen baita, horiek baitira oinarrizko hiru zutabeak, Aarhuseko Hitzarmenean (1998) eta, oraintsuago, Escazúko Hitzarmenean (2018) adierazitako jarraibideen arabera. Azken horrek aurrerapauso esanguratsu bat ekarri zuen, Latinoamerikako eta Karibeko nazioz gaindiko eremuan ingurumenari loturiko eskubideak judizialki babesteko eta defendatzeko tresna juridikoak ezartzeko premia aitortzeari dagokionez. Izan ere, 2021eko apirilaz geroztik indarrean dagoen Escazúko Hitzarmenaren arabera, estatu partaideek honako hauek bermatu behar dituzte: i) Ingurumen-informaziorako sarbidea; ii) Ingurumen-erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrek parte hartzea; iii) Ingurumen-gaietan justiziarako sarbidea; eta —Aarhuseko Hitzarmenaren osagarri gisa— iv) Ingurune seguru bat, ingurumen-gaietan giza eskubideak sustatzen eta defendatzen dituzten pertsonak, taldeek eta erakundeek mehatxurik eta murrizketarik gabe eta segurtasunez jardun ahal izan dezaten; izan ere, akordio horren parte diren herrialdeen lurraldean, azken urteotan, ingurumen-lider edo ingurumen-eskubideen defendatzaile izatea jarduera arriskutsu bihurtu da, Global Witness-ek (2021) adierazi bezala, zeinak 2020an lurraren eta ingurumenaren defendatzaile ziren 227 lagun erail zituztela zenbatu baitzuen.

Aurrekoaz gain, Escazúko Akordioak (2018) belaunaldien arteko ekitatea ere printzipio gisa ezartzen du<sup>14</sup>. Izan ere, egoera zaurgarrian edo ahul dauden pertsonak eta taldeak babestea du helburu, eta bermatzen du, gainera, ingurumen-gaietan justiziarako sarbidearekin batera pertsona eta talde orok ingurumen-arloan ezagutza espezializatuak dituzten eta eskuduntza duten estatu-organoen laguntza izango duela<sup>15</sup>, gaiaren konplexutasun tekniko-zientifikoa ez dadin oztopo izan ingurumen-justiziaz gozatzeko, zentzu jurisdikzionaletan ulertuta (Salazar, 2019).

Bestalde, aurreratu dugun bezala, ingurumen-justiziaren nozioak bigarren eskala bat ere jaso beharko luke, terminoaren alderdirik funtsezkoenari buruzkoa. Bertan, errestaurazio-prozesu bat txertatzen da, non egia, justizia eta ingurumen-konponketarako eskubideak ez ezik (Borrás, 2021), ingurumen-kalteak ez errepikatzeke eskubidea ere bermatu behar den, ingurumen-kaltearen edo ingurumen-indarkeriaren bidez giza eskubideen urraketak eragin dituzten ekintzak/gertaerak ezagutu daitezten; giza eskubideen urraketa horien ikerketa eta zabalkunde publikoa egin dadin; ingurumen-kalteen, kalte moralen eta ondare-kalteen ordainketa osoa eta integrala zehaztu dadin (Borrás, 2021); eragileei erantzukizunak esleitu diezazkieten; eta ekintza/gertaera kaltegarri horiek ez errepikatzea bermatzen duten neurriak ezar daitezten (Mesa, 2015).

Aurrekoa gorabehera, dimentsio honetan sartuko dira, halaber, herri indigenen eta afrikar ondorengoan eta nekazarien komunitateen eskubideei eragiten dieten auziak ere, baldin eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenetik (1989) eratorritako aurretiazko kontsulta-prozedurari buruzko edo ingurumen-eragina duten erabakiak hartzerakoan alde aurretik, modu informatuan eta libreki baimena eman beharri buruzko arauak bete ez badira (Rodríguez, 2014).

---

14. Zehazki, 3.g) artikuluan.

15. Zehazki, 8.3.a) artikuluan.

#### **4. Ingurumen-eskubideak babesteko giza eskubideetan oinarritutako jurisprudentziaren adibide batzuk**

Gaur egun, begien bistakoa da gizakion eta ez-gizakien ingurumen-eskubideak aitortzeko modu berrietan ahalegintzeko joera dagoela; ez-gizakien ingurumen-eskubide horiei *naturaren eskubideak* ere deitzen zaie (Gómez-Betancur *et al.*, 2022). Aitortza edo aintzatespen hori, batzuetan, legedi nazionaletan sartuz egiten da, eta, beste batzuetan, ostera, jurisprudentziaren bidez (Berros eta Carman, 2022). Hainbestekoa da joera horren indarra, ezen bai Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak (2021) eta bai Nazio Batuen Batzar Nagusiak (2022) ere arriskurik gabeko ingurumen garbi, osasungarri eta iraunkorra izateko eskubidea giza eskubide garrantzitsu gisa aitortzeko beharra ikusi baitute, giza eskubideez gozatu ahal izateko, eta aitortza hori nazioarteko bi adierazpenen bidez egin baitute.

Adierazpen horiek aurrerapen handia dakarte arlo honetan, bitarteko bat baitira estatuei eskatzeko neurriak ezar ditzatela eskubide horren erabilera bermatzeko, iraunkortasunerako trantsizio-tresna gisa, eta hori, zalantzarik gabe, aurrerapauso juridiko garrantzitsua da nazioartean. Nolanahi ere, praktikan, jurisprudentziaren bidea—kasu batzuetan jurisprudentzia nazionala eta beste batzuetan nazioartekoa—izan da gizakion eta ez-gizakien ingurumen-eskubideak aitortzeko prozesua bultzatu duena, munduko hainbat lekutan<sup>16</sup>. Fenomeno hori zeregin judizialaren ebidentzia praktikoari erantzuteko jazo da. Izan ere, agerian geratu da pertsonak eta herriek duten premia ingurumen-eskubideak bermatu daitezen, eta, era horretan, oinarritzko giza eskubide finkatuak (bizitza duinerako eskubidea bezain funtsezkoak) egikaritu ditzaten.

##### **4.1. Ingurumen osasungarrirako eskubidea babesteko adibideak Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Amerikarteko Gortearen jurisprudentzian**

Nahiz eta ingurumen egokirako eskubidea ez den giza eskubideen sistema enblematikoetan (hala nola Giza Eskubideen Europako Auzitegian edo Giza Eskubideen Amerikarteko Gortean) tradizionalki aitortutako eskubidea, horrek ez du esan nahi erakunde horiek ez dutenik eskubide hori babestu izan interpretazio judizialaren bidez, eskubide horrek erakunde horien artezkaritza-hitzaermenetan—Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (1950) eta Giza Eskubideen Amerikarteko Konbentzioan (1969)—berariaz aitortutako beste eskubide batzuekin lotura estua duela interpretatuta. Aipa ditzagun zenbait adibide.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA), adibidez, 1990eko hamarkadaz geroztik, López Ostra Espainiaren aurkako auziarekin<sup>17</sup>, erabaki du posible dela, familia-bizitzarako eta bizitza pribaturako eskubidea eta bizilekuaren bortxaezintasuna babestuz, ingurumen egokirako eskubidea bermatzea. Beste auzi batean, esandako helburu eta emaitza berberarekin, GEEAk jabetza-eskubidearen interpretazio bat egin du<sup>18</sup>, ingurumen-kalteen eraginpean dauden giza eskubideak babesteko,

16. Kolonbiako, Argentinako eta Zeelanda Berriko auzitegi eta gorte judizialak (Berros eta Carman, 2022).

17. López Ostra Espainiaren aurkako auzia (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, 1994).

18. Belgikaren aurkako auzia (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, 2007).

eta eskubide hori, babes judizial eraginkorrek batera, zentzu horretan gehien aztertu denetako bat da (Aberasturi, 2016). Era berean, GEEA eztabaidan sartu da, gizakiez harago eskubidedun subjektu berriak aintzat hartu behar direlakoan giza eskubideak bermatzeko bitarteko gisa<sup>19</sup>, eta, gainera, auzitegi hori giza eskubideen interpretazio irekia eta integrala egiten ari da, ingurumen-babesa eskubide horiek bermatzeko bitarteko gisa txertatze aldera.

Bestalde, Giza Eskubideen Amerikarteko Konbentzioan ere ingurumen-eskubideak aitortzen ez diren arren, horrek ez du eragotzi ingurumen osasungarrirako eskubidearen eta beste eskubide batzuen (hala nola bitzta duina izateko eskubidearen<sup>20</sup>, elikatzeko eskubidearen<sup>21</sup>, parte hartzeko eskubidearen<sup>22</sup> edo informaziorako eskubidearen<sup>23</sup>) arteko loturaren bidez babesa eskaintzea ingurumen-eskubideak ez aitortzeagatik eta neurrigabeko ingurumen-sakrifizioak esleitzeagatik eragindako giza eskubideen urraketen biktimei. Gainera, Giza Eskubideen Amerikarteko Gorteak (GEAG) jurisprudentzia-ildo garrantzitsua garatu du antzinako lurraldeen jabetza kolektiborako eskubidea babesteko<sup>24</sup>. Ildo horretan, GEAGk uste du jabetza kolektiborako eskubide hori komunitatearen bizimoduaren eta natura jabetza kolektibo gisa kudeatzearen artean dagoen harremanetik datorrela. Jabetza kolektibo hori komunitatearen identitate kulturalaren parte da, eta, are, identitate hori etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko berme ere bada. Horrela, bada, GEAGk aurrerapauso handia egin du Zuzenbidearen ikuspegi tradizional hertsiki antropozentrikoa zabaltzeko bidean, ikuspegi tradizionalak eragotzi egiten baitu natura babesteko premia aitortzea giza eskubideak benetan egikaritzeko baldintza *sine qua non* gisa.

## 4.2. Kolonbiako Auzitegi gorenaren jurisprudentzia

Ordenamendu juridiko nazionalen esparruan, nabarmentzekoa da Kolonbiako Auzitegi Konstituzionala; izan ere, 2014ko T-294 epaian espresuki aipatu zuen ingurumen-justiziaren printzipioa, ordenamenduan zeuden beste zenbait printzipio integratuz —hala nola berdintasuna, elkartasuna, parte-hartzea eta kalte antijuridikoagatikko ondare-erantzukizuna—, modu horretan ingurumen-ondasunak eta ingurumen-kargak ekitatez eskuratzeko eta ekitatez banatzeko eskubidea ahalbidetzeko (Kolonbiako Auzitegi Konstituzionala, 2014).

19. Hermann Alemaniaren aurkako auzian, 2012ko ekainaren 26ko epaian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiko Pinto de Albuquerque epaileak bere boto partikularrean adierazten duenez, «animalia-eskubideak ez dira animaliei esleitutako eta ordezkari baten bidez egikaritu daitezkeen legezko demandak, baizik eta alderdi kontratugileei ezarritako betebeharreri dagozkie, giza eskubideak (eta, zehazki, ingurumen osasuntsu eta iraunkorra izateko giza eskubidea) erabat, eraginkortasunez eta praktikoki baliatzeko konpromisoaren esparruan. Beraz, giza eskubideei ez zaie garrantzirik kentzen animaliak izaki arrazionalen erreinuan azpiratuta sartzeagatik; aitzitik, giza eskubideak aberastu egiten dira gizateriak beste espezie batzuen, ekosistema naturalen eta, oro har, ingurumenaren patuaren gainean duen erantzukizun osoarekin» (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, 2012).

20. Yakye Axa komunitate indigena Paraguairen aurkako auzia (Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea, 2005)

21. Sawhoyamaxa komunitate indigena Paraguairen aurkako auzia (Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea, 2006a).

22. Saramaka herria Surinamen aurkako auzia (Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea, 2007).

23. Claude Reyes eta Beste Txileren aurkako auzia (Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea, 2006b).

24. Mayagna Awas Tingni Nikaraguaren aurkako auzia (Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea, 2001).

Era berean, 2016ko T-622 epaiaren bidez, Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalak (2016) hainbat printzipio integratu ditu ez-gizakien eskubideak aitortzeko —zehazki, ibai baten eskubideak aitortzeko—, eskubide biokulturalak bermatzeko formularen pean. Auzitegiak ulertu du ibaia, izatez, gizatalde indigenen, afrikar ondorengoen eta nekazarien bizimodu tradizionalaren ardatza dela, eta, beraz, ibaiaren osotasunaren aurkako erasoak, aldi berean, herri horien bizitzeko eskubidearen, osasunaren, giro osasuntsuaren, biziraupenaren eta identitate kulturalaren aurkako erasoak ere badirela<sup>25</sup>.

Aurrekoaren ondorioz, Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalak (2016) erabaki du Atrato ibaia estatuak babestu beharreko eskubidedun subjektu gisa aitortzea gizatalde horien bizimoduaren babesari atxikita dagoela, eta bizimodu horrek, gainera, lurralde horretako dibertsitate biologikoaren kontserbazioa bermatu duela mendeetan zehar; izan ere, beren burua (beren herria, beren komunitatea) naturaren zati gisa ulertzen dutenez, gizatalde horiek ez dute natura suntsitzen.

Era berean, Kolonbiako Justizia Auzitegi Gorenaren 2018ko 4360 epaiaren bidez, Amazoniako Oihana eskubidedun subjektu izendatu zen, etorkizuneko belaunaldien ingurumen-eskubideak babesteko bitarteko gisa; izan ere, Amazoniako ekosistemaren deforestazioak eta degradazioak kalte larria eragingo baitiete etorkizuneko belaunaldi horiei (Kolonbiako Justizia Auzitegi Gorenaren, 2018).

### 4.3. Kolonbiako Bakerako Jurisdikzio Berezia

Aipagarria da, justizia trantsizionalaren ikuspegitik behatuta ere<sup>26</sup>, badirela giza eskubideak babesteko bidean aurrerapausotzat hartu beharreko erabaki judizialak, ez-gizakiei berme juridiko funtsezkoak eta prozesalak aitortzen dizkietenak.

Horren adibide da, esate baterako, 2019ko azaroaren 12ko SRVBIT – 079 autoa, Kolonbiako Egia Aitortzeko, Erantzukizuneko eta Gertakariak eta Jokabideak Zehazteko Aretoak emana<sup>27</sup>. Bertan, gatazka armatuaren biktimatzat jo zen «Katsa Su» (Awá herriaren lurralde handia izendatzeko erabiltzen den izena), eskubidedun subjektu kolektiboaren izaera aitortuta<sup>28</sup>.

---

25. Formula hori Kolonbiako Justizia Auzitegi Gorenaren (2018) ere baliatu du, Amazoniako Oihanari eskubidedun subjektuaren izaera aitortzeko (STC4360-2018 epaiaren bidez).

26. Justizia trantsizionala, Mejía eta Suárez-en (2020) esanetan, estatu batek abian jartzen duen tresna juridiko-politiko da, bere subiranotasunaren arabera eta nazioarteko betebeharrak betetz, Giza Eskubideen urraketa larrien edo Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arau-hauste larrien ustezko erantzule nagusiak ikertu, judizializatu eta, hala balegokie, haiei zigor penalak ezartzera bideratuta dagoena, eta salbuespenez eta berme prozesal errealean pean erabili behar dena.

27. Bakerako Jurisdikzio Berezikoko Justizia Sala osatzen duen agintaritzat da. 2017ko 01. Legegintzako Egintzak, zeinaren bidez «Konstituzioaren xedapen iragankorren titulu bat sortzen baita gatazka armatua amaitzeko eta bake egonkor eta iraunkorra eraikitzeko, eta beste xedapen batzuk ematen baitira», Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Ez Errepublikazaren Sistema Integrala sortzea xedatu zuen. Sistema hori, besteak beste, Bakerako Jurisdikzio Bereziak osatzen du.

28. Awá herria izaera binazionala (Kolumbia eta Ekuadorreko) komunitate indigena bat da, bere antzinako lurraldean sakabanatutako kokaleku txikietan bizi dena. Awá herriaren arabera, beren herria bizirik dagoen «Katsa Su» lurraldearena da, zeina ama lurra baita, bizimodu onaren iturria, eta Awá herriaren eta bertan bizi diren izakien etxea (SRVBIT – 079 autoa, 2019ko azaroaren 12a, 2018ko 02 kasua).



Horrela, beraz, Kolonbiako barne-gatazka armatuak lurraldeari bere dimentsio fisikoan, kulturean, sozialean eta ingurumenekoan eragin ziola uste da, eta horrek ondorioztat dakar lurraldea bera, berez, biktimatzat hartu beharra, herri indigenak eta ama lurra batzen dituen lotura berezi eta kolektiboa dela eta, herri indigena horien kosmo-ikuskeratik so eginda<sup>29</sup>.

Erabaki hori funtsezko aurrekaria da, komunitate indigena batek bere bizitza garatzen duen lurraldea suntsitzearen ondorioz jasaten duen inpaktu partikular eta neurrigabea aitortzeaz gain, lurralde horren eta bertako biztanleen arteko batasun banaezina ere aitortzen baitu, halako moldez non biztanle horien giza eskubideak bermatzeko lurralde horren existentzia eta iraunkortasuna babestu behar diren nahiaez. Babes hori, ikuspegi juridikotik, prozesu judizial batean biktima izateak sortzen dizkion bermeetan zehazten da.

## 5. Azken hausnarketak

Jurisprudenziatik eratorritako adibide horiek erakusten dutenez, giza eskubideak bermatzeko ezinbestekoa (*sine qua non* baldintza) da ingurumen-eskubideak aitortzea.

Hala ere, ingurumen-dimentsioa giza eskubideen testuinguruan txertatzeak halako konplexutasuna dakar ezen *ikuspegi multidimentsional* batetik soilik kudea baitaiteke; horixe da, hain zuzen ere, ingurumen-justiziaren nozioak eskaintzen duena, eta horrek *eraldaketa* baten premia dakar, hainbat zentzutan.

Alde batetik, giza eskubideen sistema guztietan aitortu behar da ingurumen osasungarriaz gozatzeko eskubidea. Era berean, bizitza duinerako eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren ingurumen-ondasunak ondasun urriak direnez, alternatibak bilatu behar dira haien erabilgarritasuna bermatzeko. Neurri horretan, ezinbestekoa da natura gizakion menpeko objektutzat hartzeari uztea, horrek naturaren gehiegizko erabilera, abusua eta suntsipena ahalbidetzen baititu; aitzitik, funtsezkoa da natura eskubidedun subjektutzat edo, gutxienez, babes bereziko subjektutzat hartzea. Horrek esan nahi du giza eskubideen interpretazio biozentrikoaren ikuspegia hartu behar dela.

Bestalde, espezie gisa gizateriaren iraunkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabide naturalen urritasuna dela eta, giza eskubideen sistemek kontuan izan behar dute planetaren muga biofisikoez diziiplina arteko analisi-irizpide berriak aintzat hartzea eskatzen dutela. Irizpide horien arabera, ingurumen-onurak ekitatez banatzeko, *ingurumen-aztarna iraunkorra* hartu behar da oinarritzat (hau da, ekosferan bizi diren izaki bizidunen artean unibertsaliza daitekeen ingurumen-aztarna hartu behar da oinarri), espeziea, nazionalitatea edo jatorria, generoa, egoera etnikoa, erlijiosoa edo sozioekonomikoa bereizi gabe; eta hala egin behar da bai gaur egungo eta bai etorkizuneko belaunaldietan.

---

29. Zehazki, 4633/2011 Lege Dekretua, «zeinaren bidez, herri eta komunitate indigenetako biktimei laguntza, arreta, erreparazio integrala eta lurralde-eskubideak itzultzeko neurriak ematen baitzaizkie» (3. artikulua).

Gainera, ingurumen-justiziaren ikuspegitik begiratuta, ingurumen-ondasunak eta ingurumen-kargak banatzeko prozesua *beharrak* asetzearen arabera egin behar da, eta ez *nahiak* asetzearen arabera; beraz, giza eskubideen sistemek kontsumoen tamaina murriztea sustatu behar dute, eta, era berean, garapena eta hazkunde ekonomiko mugagabea sinonimotzat hartzen dituen ideia alde batera uztearen aldeko joera izan behar dute.

Ikuspegi honek helburu du, giza eskubideak berma daitezen, ingurumen-kaltearen bidez giza eskubideen urraketak eragiten dituztenei erantzukizuna esleitzea; are gehiago, Polly Higginsek (2010a, 2010b, 2012) proposatzen duen bezala, erantzuleei *ekoizidio-delitua* ere aitortu eta egotz dakieke, zeina gizateriaren aurkako delitutzat hartu beharko litzatekeen.

Laburbilduz, ingurumen-justiziaren ikuspegiarekin zerikusia duten eduki guztiek, bai parte-hartze aktiboan eta ingurumen-demokrazian oinarritutako belaunaldi barruko eta belaunaldien arteko ekitatearekin lotutakoek, bai orainaldian eta etorkizunean babes-eskubidedun subjektu berriak aitortzearekin lotutakoek, *bitarteko eraginkor* gisa jokatu behar dute giza eskubideek egungo ingurumen-injustizietatik eratorzen diren erronkei aurre egin ahal izan diezaieten.

## 6. Bibliografia

- Aberasturi, Unai (2016): «Jurisprudencia ambiental del Tribunal Europeo de Derechos Humanos», *Ingurugiroa eta Zuzenbidea = Ambiente y Derecho*, 14, 273-277.
- Acosta, Alberto (2015): «Los coletazos del colonialismo senil», in Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (2015), *BIOPIRATERÍA La biodiversidad y los conocimientos ancestrales en la mira del capital*. <<https://lalineadefuego.files.wordpress.com/2016/08/biopiraterc3ada.pdf>>
- Acosta, Alberto eta Cajas-Guijarro, John (2021): «Sin derechos de la naturaleza no hay plenos derechos humanos. Una lectura desde la economía», in Susana Borrás eta Paola Villavicencio-Calzadilla (argtz.), *La justicia climática: Visiones constructivas desde el reconocimiento de la desigualdad*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 427-463.
- Ángel, Augusto (1998): *Cuaderno de Epistemología Ambiental*, Universidad Nacional de Colombia, Manizales.
- Arléttaz, Fernando (2022): «Prevención y reparación del daño ambiental: Problemas teóricos en perspectiva argentina», *Revista de derecho ambiental*, 1(17), Universidad de Chile, 40-41. [DOI: 10.5354/0719-4633.2022.61033]
- Arriaga, Alicia eta Pardo, Mercedes (2011): «Justicia Ambiental: El estado de la cuestión», *Revista Internacional de Sociología (RIS)*, 69(3), iraila-abendua, 627-648. [DOI: 10.3989/ris.2009.12.210]
- Attenborough, David (2021): *Una vida en nuestro planeta. Mi testimonio y una visión para el futuro*, Planeta, Bartzelona.
- Bellmont, Yary (2011): «El concepto de Justicia Ambiental», in Gregorio Mesa (argtz.), *Elementos para una teoría de la Justicia Ambiental y el Estado Ambiental de Derecho*, Universidad Nacional de Colombia-UNIJUS, Bogota, 63-86.
- Bellmont, Yary (2013): «El concepto de Justicia Ambiental: Expresión de una idea contemporánea de la justicia», in Gregorio Mesa (argtz.), *Estado Ambiental de Derecho o «Estado de cosas inconstitucional ambiental»: derechos colectivos y ambientales bajo amenaza en la era de las locomotoras normativas*, Universidad Nacional de Colombia-UNIJUS, Bogota, 89-130.

- Bellver, Vicente (1996): «El movimiento por la justicia ambiental: entre el ecologismo y los derechos humanos», *Anuario De Filosofía Del Derecho XIII*, 327-347. <[http://www.boe.es/publicaciones/anuarios\\_derecho/abrir\\_pdf.php?id=ANU-F-1996-10032700348](http://www.boe.es/publicaciones/anuarios_derecho/abrir_pdf.php?id=ANU-F-1996-10032700348)>
- Bellver, Vicente (2021): «Conceptuando la justicia climática», in Susana Borrás eta Paola Villavicencio-Calzadilla (argtz.), *La justicia climática: Visiones constructivas desde el reconocimiento de la desigualdad*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 33-80.
- Beristain, Carlos; Páez, Darío eta Fernández, Itziar (2009): *Las palabras de la selva. Estudio psicosocial del impacto de las explotaciones petroleras de Texaco en las comunidades amazónicas de Ecuador*, Hegoa, Bilbo.
- Bermejo, Roberto; Arto, Iñaki; Hoyos, David eta Garmendia, Eneko (2016): *Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Cuaderno de Trabajo 52*, Hegoa, Bilbo.
- Berros, Valeria eta Carman, María (2022): «Los dos caminos del reconocimiento de los derechos de la naturaleza en América Latina», *Revista Catalana de Dret Ambiental*, 13(1), 1-44.
- Borrás, Susana (2021): «La responsabilidad climática sobre las pérdidas y los daños: la deuda climática pendiente», in Susana Borrás eta Paola Villavicencio-Calzadilla (argtz.), *La justicia climática: Visiones constructivas desde el reconocimiento de la desigualdad*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 361-396.
- CEPAL (2013): *Amazonia posible y sostenible*, Patrimonio Natural - Fondo para la Biodiversidad y Áreas Protegidas (Colombia), Bogota.
- Del Vecchio, Giorgio (1968): «Filosofía del derecho en compendio», *Estudios de Derecho*, 27(74), 281-308. <<https://revistas.udea.edu.co/index.php/red/article/view/332867>>
- De Sousa Santos, Boaventura eta Sena Martins, Bruno (argtz.) (2020): *Pluriverso de los derechos humanos. La diversidad de las luchas por la dignidad*, Akal editores, Ciudad de México.
- Di Chiro, Giovanna (1997): «Justicia social y Justicia ambiental en Estados Unidos», *Ecología Política*, 17, Icaria, Bartzelona, 105-118.
- Drnas De Clement, Zlata (2015): «La complejidad del principio *pro homine*», *Justicia Ambiental*, 12, Buenos Aires, 98-111. <<https://www.corteidh.or.cr/tablas/r33496.pdf>>
- Fernández Buey, Francisco (2012): «Introducción», in J. Riechmann, *El socialismo puede llegar sólo en bicicleta*, Catarata, Madril.
- Fraser, Nancy (2008): *Escalas de Justicia*, Editorial Herder, Bartzelona, 65-96.
- Global Witness (2021): *Last line of defense: The industries causing the climate crisis and attacks against land and environmental defenders*, Global Witness. <<https://www.globalwitness.org/es/last-line-defence-es/>>
- Goldschmidt, Werner (1973): *Introducción filosófica al Derecho: la teoría trialista del mundo jurídico y sus horizontes*, Depalma, Buenos Aires.
- Gómez-Betancur, Luisa; Vilardy, Sandra eta Torres, David (2022): «Ecosystem services as a promising paradigm to protect environmental rights of indigenous peoples in Latin America: the constitutional court landmark decision to protect Arroyo Bruno in Colombia», *Environmental Management*, 69(4), 768-780.
- Gudynas, Eduardo (2010): La senda biocéntrica: valores intrínsecos, derechos de la naturaleza y justicia ecológica. *Tabula Rasa*, 13, 45-72.
- Gudynas, Eduardo (2013): «Extracciones, Extractivismos y Extrahecciones», *Observatorio del Desarrollo*, 18, Centro Latino Americano de Ecología Social, Montevideo, 1-18.

- Gudynas, Eduardo (2015): *Derechos de la naturaleza: Ética biocéntrica y políticas ambientales*, Editorial Abya-Yala.
- Hallegatte, Stephane; Vogt-Schilb, Adrien; Bangalore, Mook eta Rozenberg, Julie (2017): *Unbreakable. Building the Resilience of the Poor in the Face of Natural Disasters*, World Bank Publications. [DOI: 10.1596/978-1-4648-1003-9]
- Herrero, Yayo (2021): «La crisis ecosocial: impactos y resistencias en clave de género», in Susana Borrás eta Paola Villavicencio-Calzadilla (argtz.), *La justicia climática: Visiones constructivas desde el reconocimiento de la desigualdad*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 243-264.
- Hervé, Dominique (2010): «Noción y elementos de la Justicia Ambiental: Directrices para su aplicación en la planificación territorial y en la evaluación ambiental estratégica», *Revista de Derecho*, 23(1), 9-36. <<http://www.scielo.cl/pdf/revider/v23n1/art01.pdf>>
- Higgins, Polly (2010a): *Eradicating ecocide Laws and governance to prevent the destruction of our planet. Eradicating Ecocide: Laws and Governance to Prevent the Destruction of our Planet*. <<http://eradicatingecocide.com/our-earth/earth-justice/>>
- Higgins, Polly (2010b): «Planetary slavery», *Socialist Lawyer*, 54 (2010eko martxo), 32-33. <[https://www.jstor.org/stable/42948528#metadata\\_info\\_tab\\_contents](https://www.jstor.org/stable/42948528#metadata_info_tab_contents)>
- Higgins, Polly (2012): «Seeding Intrinsic Values: How a Law of Ecocide will Shift our Consciousness», *Cadmus*, 1(5), (2012ko urria), 9-10. <[http://www.cadmusjournal.org/files/pdfreprints/vol1issue5/Reprint\\_CJ-15\\_Seeding\\_Intrinsic\\_Values\\_PH.pdf](http://www.cadmusjournal.org/files/pdfreprints/vol1issue5/Reprint_CJ-15_Seeding_Intrinsic_Values_PH.pdf)>
- Kothari, Ashish; Salleh, Ariel; Escobar, Arturo; Demaria, Federico eta Acosta, Alberto (koor.) (2019): *Pluriverso: Un diccionario del posdesarrollo*, Icaria, Bartzelona.
- López Bermúdez, Francisco (2016): «La interacción humanidad-Tierra: El Antropoceno», in Teresa Vicente eta Carlos Berzosa, (koor.), *Justicia ecológica en la era del Antropoceno*, Trotta, Madril, 71-124.
- Martínez Alier, Joan (2008): «Conflictos Ecológicos y Justicia Ambiental», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 103, 11-28.
- Martínez Alier, Joan (2009): *El ecologismo de los pobres*, Icaria, Bartzelona.
- Martínez Alier, Joan (2011): «La justicia ambiental y el decrecimiento económico: Una alianza entre dos movimientos», *Ecología Política*, 41, 45-54.
- Martínez, Pablo; Medina, José; Martínez, Ignacio; Gil, Luisa eta Fornés, Ana (2021): «Una agenda transformadora de coherencia de políticas para un desarrollo sostenible», in Miquel Carrillo (koor.), *La nueva cooperación: Una propuesta de política pública para la justicia global*, Icaria, Bartzelona, 132-150.
- Mejía, Jean eta Suárez, Angelica (2020): «Justicia transicional: ¿Un concepto construido o en formación?», *Estudios en Seguridad y Defensa*, 15(29), 159-177. [<https://doi.org/10.25062/1900-8325.247>]
- Mesa, Gregorio (2007): *Derechos Ambientales en perspectiva de integralidad: concepto y fundamentación de nuevas demandas y resistencias actuales hacia el Estado Ambiental de Derecho*, (2. ed., 2010) (3.ed., 2013), Universidad Nacional de Colombia, Bogota.
- Mesa, Gregorio (2011): «Elementos para una teoría de la Justicia Ambiental», in Gregorio Mesa (ed.), *Elementos para una teoría de la Justicia Ambiental y el Estado Ambiental de Derecho*, Universidad Nacional de Colombia-UNIJUS, Bogotá, 25-62.
- Mesa, Gregorio (2015): «Conflictividad y Desplazamiento Ambiental: Elementos Jurídico-Políticos De Justicia Ambiental y Reparación A Sociedades Tradicionales», *Revista Catalana De Dret Ambiental*, 6(1), 1-50.

- Miqueleiz, Estrella; Ardanaz, Eva; Floristán, Yugo; Iniesta, Irene; Aldaz, Javier eta Cambra, Koldo (2019): *Revisión bibliográfica: efectos del cambio climático en la salud*, Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra (ISPLN). <<https://www.navarra.es/documents/2696321/2696934/Resultado+C5.1+Revisi%C3%B3n+bibliogr%C3%A1fica+efectos+CC+en+salud.pdf/b4955834-e1f6-5ac7-20f6-186663052be9?t=1559917403000>>
- Moreno, María (2019): «Racismo ambiental: muerte lenta y despojo de territorio ancestral afroecuatoriano en Esmeraldas», *Íconos. Revista de Ciencias Sociales*, 64, 89-109.
- Pardo, Mercedes eta Ortega, Jordi (2018): «Justicia ambiental y justicia climática: el camino lento pero sin retorno, hacia el desarrollo sostenible justo», *BARATARIA. Revista Castellano-Manchega de Ciencias Sociales*, 24, 83-100.
- Pleyers, Geoffrey (2019): «Movimiento Alterglobalización», in Kothari et al., *Pluriverso: Un diccionario del posdesarrollo*, Icaria, Bartzelona, 343-346.
- Pogge, Thomas (2013): *¿Estamos violando los derechos humanos de los pobres del mundo?*, Proteus, Bartzelona.
- Prieto Sanchís, Luis (1997): «Teoría del Derecho», in Luis Prieto Sanchís (koor.), *Introducción al Derecho*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, Cuenca, 13-29.
- Rawls, John (1971): *Teoría de la Justicia*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Redondo, Cristina; Sauca, José eta Ibáñez, Perfecto (2009): *Estado de Derecho y decisiones judiciales*, Fundación Coloquio Jurídico Europeo, Madril.
- Rees, William (2009): «Naturaleza Humana, Huella Ecológica e Injusticia Ambiental», *Cuaderno Interdisciplinar de Desarrollo Sostenible*, 3, 3-28.
- Ribeiro, Silvia (2015): «Biopiratería: la privatización de los ámbitos de la comunidad», in Alberto Acosta eta Esperanza Martínez, *BIOPIRATERÍA La biodiversidad y los conocimientos ancestrales en la mira del capital*. <<https://lalineadefuego.files.wordpress.com/2016/08/biopiraterc3ada.pdf>>
- Riechmann, Jorge (2012): *El socialismo puede llegar sólo en bicicleta*, Catarata, Madril.
- Rodríguez Mir, Javier (2012): «Los sinuosos caminos del racismo: racismo ambiental en Argentina», *Revista de Antropología Experimental*, 12, 43-59.
- Rodríguez, Gloria Amparo (2014): *De la consulta previa al consentimiento libre, previo e informado de los pueblos indígenas en Colombia*, Colección diversidad étnica y cultural, Universidad del Rosario, Bogota.
- RTVE, Equipo del tiempo (2021): *El desafío del clima*, HarperCollins, Madril.
- Sachs, Aaron (1996): «Ecojusticia. La unión de los derechos humanos y el medio ambiente», *Cuadernos World Wacht*, Bakeaz, Bilbo. <<http://www.amnistiacatalunya.org/edu/2/global/glob-a.sachs.html>>
- Salazar, Eduardo (2016): «Derecho ambiental y acceso a la justicia ecológica», in Teresa Vicente eta Carlos Berzosa, (koor.), *Justicia ecológica en la era del Antropoceno*, Trotta, Madril, 155-188.
- Salazar, Eduardo (2019): *El acceso a la justicia ambiental a partir del Convenio de Aarhus*, Thomson Reuters Aranzadi.
- Santamaría, René (2020): «Los derechos humanos y los derechos de la naturaleza en el neoconstitucionalismo andino: Hacia un necesario y urgente cambio de paradigma», *Anuario de Derechos Humanos*, 103-125.
- Schlosberg, David (2007): «Justicia ambiental y climática: de la equidad al funcionamiento comunitario», *Ecología Política*, 41, 25-36.
- Serrano Moreno, José (1992): *Ecología y derecho: Principios de Derecho Ambiental y Ecología Jurídica*, Comares, Granada.

- Stutzin, Godofredo (1984): «Un imperativo ecológico: reconocer los derechos de la naturaleza», *Ambiente y Desarrollo*, 1(1), 97-114.
- Svampa, Maristella (2020): «¿Hacia dónde van los movimientos por la justicia climática?», *Nueva sociedad*, 286, 107-121.
- Toledo, Victor (2013): «El metabolismo social: una nueva teoría socioecológica», *Relaciones. Estudios de historia y sociedad*, 34(136), 41-71.
- Useros Fernández, José (2013): «El cambio climático: sus causas y efectos medioambientales», *Anales de la Real Academia de Medicina y Cirugía de Valladolid*, 50, 71-98.
- Vicente, Teresa eta Berzosa, Carlos (2016): *Justicia ecológica en la era del Antropoceno*, Trotta, Madril.
- Vicente, Teresa (2020): «De la justicia climática a la justicia ecológica: los derechos de la naturaleza», *Revista Catalana de Dret Ambiental*, 11(2), 1-42.
- Westra, Laura (2016): «Integridad Ecológica: entre la ética y la ley», *Revista Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 134, 119-128. <[https://www.fuhem.es/wp-content/uploads/2018/12/Integridad\\_ecologica\\_L.Westra.pdf](https://www.fuhem.es/wp-content/uploads/2018/12/Integridad_ecologica_L.Westra.pdf)>
- Wilensmann, Javier (2011): «La administración de justicia como un bien jurídico», *Revista de Derecho (Pontificia Universidad Católica de Valparaíso)*, 36(1), 531-573. <<http://www.rdpucv.cl/index.php/rderecho/article/viewArticle/775>>
- Young, Iris (2003): «Democracia y justicia social», *Inclusión social y nuevas ciudadanías*, Pontificia Universidad Javeriana, Bogota, 43-54.

## JURISPRUDENTZIA

### Giza Eskubideen Europako Auzitegia

- Giza Eskubideen Europako Auzitegia (1994): López Ostra Espainiaren aurkako auzia, 1994ko abenduaren 9ko epaia.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2007): Hamer Belgikaren aurkako auzia, 2007ko azaroaren 27ko epaia.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegia (2012): Hermann Alemaniaren aurkako auzia, 2012ko ekainaren 26ko epaia.

### Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea / Corte Interamericana de Derechos Humanos

- Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea (2001): Mayagna Awas Tingni Nikaraguaren aurkako auzia, 2001eko abuztuaren 31ko epaia.
- Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea (2005): Yakye Axa komunitate indigena Paraguairen aurkako auzia, 2005eko ekainaren 17ko epaia.
- Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea (2006a): Sawhoyamaxa komunitate indigena Paraguairen aurkako auzia, 2006ko martxoaren 29ko epaia.
- Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea (2006b): Claude Reyes eta Beste Txileren aurkako auzia, 2006ko irailaren 19ko epaia.
- Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea (2007): Saramaka herria Surinamen aurkako auzia, 2007ko azaroaren 28ko epaia.

### **Kolonbiako Auzitegi Konstituzionala / Corte Constitucional de Colombia**

- Kolonbiako Auzitegi Konstituzionala (2014): 2014ko T-294 epaia, Epailea: María Victoria Calle Correa.
- Kolonbiako Auzitegi Konstituzionala (2016): 2016ko T-622 epaia, Epailea: Jorge Iván Palacio Palacio.

### **Kolonbiako Justizia Auzitegi Gorena / Corte Suprema de Justicia de Colombia**

- Kolonbiako Justizia Auzitegi Gorena (2018): 2018ko apirilaren 8ko STC4360-2018 epaia, Kasazio Zibileko Aretoa, Epailea: Luis Armando Tolosa Villabona.

### **Kolonbiako Bakerako Jurisdikzio Berezia / Jurisdicción Especial para la Paz en Colombia**

- Kolonbiako Bakerako Jurisdikzio Berezia (2019): 2019ko azaroaren 12ko SRVBIT - 079 autoa, Kolonbiako Egia Aitortzeko, Erantzukizuneko eta Gertakariak eta Jokabideak Zehazteko Aretoa.

### **ARAUDIA**

- Aarhuseko Hitzarmena (1998).
- Ekuadorko Konstituzio Politikoa (2008).
- Escazúko Hitzarmena (2018).
- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950eko azaroaren 4koa).
- Giza Eskubideen Amerikarteko Konbentzioa (1969ko azaroaren 22koa).
- Kolonbiako Konstituzio Politikoa (1991).
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena (1989ko ekainaren 7koa).
- Nazio Batuen Batzar Nagusiaren garapen iraunkorrerako 2030 Agenda (2015eko irailaren 25ekoa).
- Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren Adierazpena (2021eko martxoaren 5ekoa), arriskurik gabeko ingurumen garbi, osasungarri eta iraunkorra izateko eskubidea aitortzen duena, giza eskubideez gozatzeko giza eskubide garrantzitsu gisa.
- Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Adierazpena (2022ko uztailaren 26koa), ingurumen garbi, osasungarri eta iraunkorra izateko eskubidea aitortzen duena, giza eskubide gisa.

